



UNITATE DIDAKTIKOA: BELDUR BARIK

Helburu Nagusiak

- Neska-mutilek indarkeria sexistaren aurkako produktu artistiko bat **ezagutzea eta aztertzea**
- Neska-mutilek **animatzea** indarkeria horri ezetz esateko adierazpen artistikoak sortzera.

Helburu Zehatzak

- Neska-mutilek **hausnartzea** tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen egoerari buruz.
- **Ukertzea** horrelako egoerak gazteen arteko bikote heterosexualen harremanetan ere badaudela
- Informazioa ematea, **kontura daitezen** berdintasunean oinarritutako harremanarekin bat ez datozen jarrerez eta jokamoldeez.
- Informazio ematea **zalantzan jar ditzaten** tratu txarrak jasandako emakumeei buruzko mito eta uste faltsuak.
- Informazioa ematea **zalantzan jar ditzaten** tratu txarrak eragiten dituzten gizonei buruzko mito eta uste faltsuak.

Metodologia

Unitate honetan **Beldur Barik** abestian oinarritutako lan proposamena aurkituko duzu. Abestia 2009an editatu zen, Berdinsareak antolatutako azaroaren 25eko kanpainaren barruan (Eudel, Emakunde eta Eusko Jaurlaritzako Genero Indarkeriaren biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak hartu dute parte) Kanpainaren izena abestiaren izena izan zen, *Beldur Barik*. Legazpiko Udalak parte hartze aktiboa izan zuen kanpainan. Hori dela eta, abestiaren bideoa Legazpin grabatu zen, baina jardueran herri askotako gazteek kolaboratu zuten, indarkeria matxistari ezetz esanez.

Lanari etekin handiago ateratzeko, entzun abestia eta ikusi bideoa hiru-lau aldiz. Making off-ari ere ondo begiratu (loturan klikatuta jaitsiko duzu) Material osagarri bezala, material horien kanpainari buruzko bideoa ikus dezakezu.

1 Fitxa: Zure momentua iritsi da!!

Gaia	Helburu zehatzak	Denbora	Jarduera mota
Bikote heterosexualen eragindako tratu txarrak	<p>1. Tratu txarrak jasandako emakumeek bizi duten egoerari buruz hausnartzea, eta egoera horretarako ateratzeko izan ditzaketen zailtasunak ulertzea.</p> <p>2. Ukertzea aipatutako egoerak gazteen arteko bikote heterosexualen ere eman daitezkeela.</p> <p>3. Konturatzeta berdintasunean oinarritutako harremanarekin bat ez datozen jarrerak eta jokamoldeak.</p>	<p>Gutxienez: ordu 1 eta 30 minutu.</p> <p>Gehienez: 2 ordu.</p>	-Bakarkako eta talde txikiak lana abestia aztertzeko
Xede-taldea	Landu beharreko kontzeptu nagusiak	Beharrak	
<p>15 eta 19 urte bitarteko neska-mutilentzat</p> <p>20 eta 5 urte bitarteko neska-mutilentzat.</p> <p>Taldeek material bera erabiliko dute, baina bi aldaera daude, adinaren arabera.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Berdintasuneko harremanak inoiz ez du beldurra oinarri. - Emakumeen aurkako indarkeria gazteen arteko harremanetan ere ematen da. - Denok egin dezakegu zerbait indarkeriaren aurka, eta errespetua eska dezakegu koadrilan. 	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Beldur Barik</i> abestiaren bideoa. Hemendik jaitsi dezakezu: http://avatarberdintasuna.blogspot.com/. - Lan fitxa - Irakurketa osagarria: Azaroaren 25a: Miraval ahizpen omenez http://www.nodo50.org/mujeres/red/violencia-25-hermanas_miraval.html 	

Prozedura

- Hasiko gara galdetzen partehartzaileei ea dakiten zergatik ospatzen den azaroaren 25a. Argi gelditzen denean Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela, galdetu ea dakiten zergatik aukeratu zuten egun hori. 1 fitxako edukietako informazioa emango zaie, Miraval ahizpei buruzkoa eta irakurketa osagarrian datorrena.
- Ondoren, Beldur Barik abestiaren errepika entzungo dute segundu batzuk, eta galdetuko zaie ea ezagutzen duten. Eutsi taldeari eta abestiari buruzko informazioa emango zaie (ikus <http://avatarberdintasuna.blogspot.com/>) eta 1 fitxaren edukiak)
- Abestiaren bideoa ikusiko da (abestia euskaraz dago, baina lan taldea gaztelaniaz bada, ariketa gaztelaniaz emango zaie). Aurkitu hitza ariketa Fitxa honetako edukietan aurkituko duzu.
- Ariketan abestitik ateratako hitz eta esaldiak daude, orrialdearen behealdean datozenak. Partehartzaileek, talde txikietan banatu eta hitzak eta esaldiak nola kokatu pentsatuko dute, kontuan izanda zein den transmititu beharreko mezua. Ariketa egin bitartean, abestia egon daiteke jarrita.
- Talde txikietako lana amaitzen dutenean, gela guztia batu eta talde handian erantzun desberdinak konparatuko dira, eta azaldu egingo dute zergatik jarri dituzten era jakin batean, zergatik hitz batzuk hutsune batean eta ez bestean, etab...
- Jarduera amaitzeko, aukera emango zaiei abestiari beste izenburu bat jartzeko. Zein izango litzateke izenburua?

Aldaerak

1 ALDAERA:

15-19 urtekoentzat, *Hitzak Lotzen* ariketa egin dezakegu, abestia landu ondoren. Ariketa Fitxa honetako edukietan dator. Minutu batzuk emango zaie pentsatzeko ezkerretako zein hitz lotu eskuinekoei, eta zergatik, eta, ostean, denen artean komentatuko dute.

2 ALDAERA:

19-25 urtekoentzat Berdintasunean oinarritutako harremanaren bost ezaugarrien testua banatuko zaie. Testua Fitxa honetako edukietan duzu. Azalduko zaie bikote harremanen helburua bitzta partekatzea dela, baina baldintza berdinekin.

Testua irakurri ondoren, eta ariketan azaltzen den bezala, talde txikiak egin eta bikotekideen artean ematen diren gatazka edo egoera zehatzei buruz aritu beharko dute, hain zuzen ere, berdintasuna errespetatzen ez den egoerei eta gatazkei buruz. Talde txikietan ateratako adibideak talde handian eztabaidatuko dituzte. Ostean, esan beharko dute zein izango den jokamolderik egokiena berdintasuna errespetatzeko.

Dinamika ondo egiteko oharrak

- Arreta berezia jarri partehartzaileek aipatutako adibideei, inguruan duten jarreraren eta jokamolden adibide izan daitezkeelako, edo are gehiago, zuzenean bizi dituzten egoeren adibide izan daitezkeelako.

- Dinamizatzailak kontuan izan beharko du, batzuetan, pentsatzen dela berdintasuna izateko besteak egiten duena egin behar dugula, hau da, neskek pentsatu dezakete "*berak mugikorra begiratzen badit, nik ere gauza bera egingo diot*" edo mutilek esan dezakete "*berak jeloskor nahi banau ikusi, neuk ere jeloskor jarriko dut*" ...pentsaturik horrela berdintasuna lortu dutela.

Argi gelditu behar da horrek ez duela zerikusirik lantzen ari garen berdintasunarekin. Jokamolde bat errespetu gabea denean, egoera ez da konpontzen besteak egiten duena eginez, baizik eta besteari azalduz ez dugula gustuko, min ematen digula. Pertsona batek benetan maite bagaitu, ez du minik ematen digun jokamolderik erabiliko.



1 FITXAREN EDUKIA

ZERGATIK AZAROAREN 25A

1981n, Latinoameriketako eta Karibeko Lehen Bilgune Feministan, Azaroaren 25a ezarri zen Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Borroka Egun.

1999an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak Azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeria desagertzeko Nazioarteko Egun ezarri zuen.

Egun hori aukeratu zuten Miraval ahizpen omenez: Minerva, Patria eta M^a Teresa erahil egin zituzten 1960an Dominikar Errepublikan, Rafael Leónidas Trujillo diktadorearen aurkako mugimenduko kide zirelako.

Azaroaren 25ean, mundu guztian antolatzen diren jardueren bitartez, munduan indarkeria sexista jasaten duten emakume guztiak gogoratu, gure gaitzespena adierazi eta desagertzeko desioa berresten dugu.



EUTSI ETA *Beldur Barik*

Eutsi taldea Legazpiko bost neskek osatzen dute: Ainhoa, Itxaso, Itxasne, Intza eta Olatzek, taldeko gitarrista eta abestia idatzi zuena. Kantua indarkeria sexistaren aurkako borrokaren ikur bilakatu da. Abestia hausnarketa prozesu baten ondorioa da, 14 eta 25 urte bitarteko neskek eurengan eragina zuten gaiei buruz aritu zirenean; indarkeriazko egoerak antzeman zituzten, eta sarritan intentsitate gutxikoak izan arren, etorkizunean zer gerta daitekeen erakusten dute. “ Gaur eskotea erabiltzearen egindako kritika dena, bihar ukabilkada izan daitekeela” ondorioztatu zuten. Hori dela eta, erabaki zuten azkar abian jarri behar zutela gauaren iluntasunak denei ematen zien beldurraren aurka.

Eutsi prozesu horretara heldu zen Berdinsareak sustatutako prozesuaren barruan (indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko Euskal Herriko udalen sarea). Hedabide desberdinen bitartez, esate baterako, interneteko sare sozialak, harremanetan jarri ziren Euskal Herriko neska gazteekin. Nahi izan zutenek inguruko indarkeriari buruzko ikerketa lana egin zuten. Euren ondorioak eta proposamenak gida, abesti eta bideoklip baten gauzatu ziren, beldur barik ibiltzeko eskubidea aldarrikatzen dutenak.

BELDUR BARIK

Hitzak eta musika: EUTSI

Gorrotoa zure begiradan isladatzen da
ezintasuna dakarkit burura,
denbora luzez daramazu bakarrik
zulotik atera ezinik.....IXILIK!!

Gorrotoa zure begiradan mantentzen da
irtenbide bat bilatzeko ordua da,
amets gaizto hontatik esnatzen zara
goiza iritsi da ta!!!

Begi disdiratsu negarti horiek ez itzazu itxi,
ordua iritsi da, eguna heltzear da
Berdintasuna nagusituko da egun batean
ez dago urruti,laster amaituko da....
ZURE MOMENTUA IRITSI DA!!!



Gure ametsa laster egi bihurtuko da,
orain arteko sufrimendua bukatzean
mundu berri bat hastear dagooooo
gogoratuuuu.....

EZ ZAITZATELA ZAPALDU!!

Begi disdiratsu negarti horiek ez itzazu itxi,
ordua iritsi da,eguna heltzear da
Berdintasuna nagusituko da egun batean
ez dago urruti, laster amaituko da...

Begi disdiratsu negarti horiek ez itzazu itxi,
ordua iritsi da,eguna heltzear da
Berdintasuna nagusituko da egun batean
ez dago urruti, laster amaituko da...
ZURE MOMENTUA IRITSI DA!!!!



ARIKETA: AURKITU HITZA

_____ zure begiradan isladatzen da
_____ dakarkit burura,
denbora luzez daramazu _____
zulotik atera ezinik....._____

Gorrotoa zure begiradan mantentzen da
_____ bilatzeko ordua da,
amets gaizto hontatik _____
_____ iritsi da ta!!!

Begi disdiratsu negarti horiek ez itzazu itxi,
_____, eguna heltzear da
_____ nagusituko da egun batean

ez dago urruti,laster amaituko da....

_____ IRITSI DA!!!

_____ laster egi bihurtuko da,
orain arteko sufrimendua bukatzean
mundu berri bat hastear dagooooo
gogoratuuuu.....

Begi disdiratsu negarti horiek ez itzazu itxi,
ordua iritsi da,eguna heltzear da
Berdintasuna nagusituko da egun batean
ez dago urruti, laster amaituko da...
ZURE MOMENTUA IRITSI DA!!!!

Abestiaren hitzen eta mezuaren esanahia kontuan izaten badituzu, baietz hutsune guztiak bete.

gorrotoa

isilik

berdintasuna

ez zaitzatela zapaldu

zure ordua

bakarrrik

esnatzen zara

ordua iritsi da

gure ametsa

ezintasuna

irtenbide bat

goiza



ARIKETA: HITZAK LOTZEN

Komentatu zure lagunekin ezkerreko zein hitz lotuko zenuketen eskuineko hitzekin, eta zergatik. Ariketak aukera ugari ditu, erantzun bat baino gehiago ditu. Hizketan hasi aurretik, pentsatu pixka batean.

gorrotoa	Eskubidea
isilik!	
berdintasuna	Tratu txarrak
ez zaitzatela zapaldu!	
zure ordua	Zapalkuntza
bakarrik	
esnatzen zara	Zure buruaren jabe izan
ordua iritsi da	
gure ametsa	Laguntza eskatu
ezintasuna	
irtenbide bat	Askatasuna
goiza	

ARIKETA: BERDINTASUNEAN OINARRITUTAKO HARREMANAREN BOST EZAUGARRI

- 1.** Bi pertsonak ados daude harreman motan: *(noizean behingo rolloa, harreman sexuala soilik, harreman sexualak soilik bikotekidearekin ala ez....*
- 2.** Bi pertsonak ados daude harremana jarraitzearekin edo uztearekin. Arriskurik handiena litzateke gaizki atera izanaren tristura.
- 3.** Bi pertsonak dute harremanaren ardura, arriskuena eta ondorioena.
- 4.** Harremana aukera berdintasunean dago oinarrituta. Bi pertsonak nahi dutena egiten dute, hitzartu egiten dute zer egin elkarrekin eta zer egin banatara.
- 5.** Erabakiak ez dira inposatzen, hitz egiten da, hitzartu egiten da, barkamena eskatzen da...

Irudikatu berdintasun baldintzarik ez dauden egoerak, eta pentsatu nola jokatu berdintasuna egon dadin, eta zer egin beharko luketen bikotea osatzen duten bi pertsonak arazoaren aurrean, harremana berdintasunean oinarritutakoa izateko. Jarri adibide bezala egoera zehatzak.

2 FITXA: Keinuz esan, eta hobeto entzungo da

Gaia	Helburu zehatzak	Denbora	Jarduera mota
Beldur Barik eta irudimenarekin	<p>1. Neska-mutilek <i>Berdur Barik</i> abestiaren edukiak ezagutzea proposatutako ariketen bidez.</p> <p>2. Partehartzaileak konturatzea eduki argiko kanpaina batek sor dezakeen mobilizazioaz.</p>	<p>Gutxienez: ordu 1 eta 30 minutu.</p> <p>Gehienez: 2 ordu.</p>	-Bakarkako eta talde txikietako lana abestia aztertzeko
Xede-taldea	Landu beharreko oinarrizko kontzeptuak	Beharrak	
<p>15 eta 19 urte bitarteko neska-mutilentzat.</p> <p>20 eta 25 urte bitarteko neska-mutilentzat</p> <p>Taldeentzako materiala berdina izango da, baina bi aldaera daude, adinaren arabera.</p>	<p>- Erasoa jasateko arrisku faktorea emakume izatea da. Edozein adin, maila ekonomiko, ikasketa, nazionalitate, kanpoko itxura...duena</p> <p>- Erasoa eragiteko arrisku faktorea gizona izatea da. Edozein adin, maila ekonomiko, ikasketa, nazionalitate, kanpoko itxura...duena, pentsatzen baitute gizonak izatearren autoritate izateko eta emakumeen jokamoldea erabakitze eskubidea dutela, eta euren arauekin bat ez datozenean, zigortu egiten dituzte.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Beldur Barik</i> abestiaren bideoa - Lan Fitxa 	

Prozedura

- Abestiaren errepika entzun eta galdetuko zaie ea ezagutzen duten. Eutsi eta Beldur Barik abestiari buruzko azalpen laburra egingo zaie.
- Ondoren, abestiaren bideoa ikusiko da, eta hitzak eta esaldiak datozen fitxak banatuko zaizkie (oraindik ez dugu abesti osoaren hitzak banatuko). Fitxa dutenei eskatuko zaie fitxetan dauden hitzak azaltzeko, baina keinuz. Gainerakoek asmatu egin beharko dituzte.
- *Urkatuaren jokoa* ere erabil daiteke, dena delako hitza asmatzea zaila denean.
- Ariketa amaitu ostean, abestiaren hitzak emango zaizkie bakarka irakurtzeko. Jarraian, eta binaka, abestiaren mezua esaldi baten *laburtu* beharko dute. Esaldi horiek eztabaidatu eta egokienak aukeratuko dira.
- *Beldur Barik* abestiaren making off-a erakutsiko da, ikus dezaten zer nolako mobilizazioa sortu zuen bideoa grabatzeak.
- Ariketa amaitzeko, esaldia (edo esaldiak) kartel edo pankarta baten idatz dezakete, gelan, pasilloan, edo kaletik ikusgai egon daitekeen nonbait jar dezakete (azaroaren 25aren inguruan eginez gero). Apaintzeko edo laguntzeko, Puntu Lilak margotu ditzakete (ikus Puntu Lilaren erabilerari buruzko unitate didaktikoak). Bestelako erak ere badituzte emakumeenganako indarkeriaren aurka daudela adierazteko: bertsoak, marrazkiak, argazkiak...

Aldaerak

1 ALDAERA:

15-19 urtekoentzat, fitxen edukiak keinuz adierazi beharrean, marrazkiak egin ditzakete arbelean, baina ezin izango dute hitz egin, ezta keinuak egin edo letrak edo zenbakiak idatzi ere.

2 ALDAERA:

19-25 urtekoentzako, Abestia landu ondoren, erabiliko dugun dinamikak tratu txarrak jasandako emakumeen eta tratu txarrak eragiten dituzten gizonen mitoak ezabatzea du helburu. Lortu nahi duguna da konturatzea denok jasan dezakegula arazoa, denok bizi dezakegula tratu txarren egoeraren bat. Hori dela eta, kontuan izan behar ditugu gure bikote harremanetako elementuak, gure jokamoldeak, etab... Ikasleei eskatuko zaie, binaka jarri eta tratu txarrak jasandako emakumearen eta tratu txarrak eragiten dituen gizonaren profila egiteko. Horretarako, 10 minutu izango dituzte. Jarraian, gainerako guztiekin egindako profila komentatuko dute. Bikote guztiek profilen berri eman ondoren, dinamizatzaileak bat datozen eta aurka dauden ekarpenak azpimarratuko ditu.

Orduan, tratu txarrak eragiten dituen gizonaren eta tratu txarrak jasandako emakumearen profilen koadroak banatuko zaizkie, eta galdetu egingo zaie, informazio horren arabera, zein emakume motak jasan ditzakeen tratu txarrak bikotekidearengandik eta zein gizon motak eragin diezaizkiokeen tratu txarrak bikotekideari. Argi dago edozein egon daitekeela arriskuan, eta tratu txarrak jasandako emakumei eta tratu txarrak eragiten dituzten gizonei buruzko ideia faltsu ugari ditugula, tartean, soilik helduen artean gertatzen dela: indarkeria matxista gazteen artean ere ematen da.



2 FITXAREN EDUKIAK

KEINUEN JOKORAKO FITXAK

zulotik atera ezinik

isilik

ez zaitzabela zapaldu!

ezintasuna

gorrotoa

berdintasuna



Begi negartiak

Ordua iritsi da

Eguna heltzear da

Gure ametsa laster egi bihurtuko da

Amets gaizto hontatik esnatzen zara

Irtenbide bat bilatu



TRATU TXARRAK JASANDAKO EMAKUMEAREN PROFILA

Hona hemen indarkeria jasan dezaketen emakumeen profila

Gazteak, adinekoak, argalak, ikasketadunak, neskatoak, altuak, lodiak, bikotedunak, ezkonduak, ikasketa gabeak, exekutiboak, dibortzatuak, hiru umedunak, enpresarioak, bikote gabeak, heterosexualak, dirudunak, 48 neurrikoak, ikasleak, aspergarriak, lagun askokoak, ume bakarrekoak, adoptatuak, maitatuak, premiadunak, gogorak, argiak, ahulak, ameslariak, praktikoak, menpekoak, erromantikoak, homosexualak, independienteak, klasikoak, aberatsak, ume gabeak, 38 neurrikoak, alaiak, txikiak, gerrerak, zehatzak, modernoak, serioak, lagun gabeak...

ARRISKUA EMAKUME IZATEA DA!!!



TRATU TXARRAK ERAGITEN DITUEN GIZONAREN PROFILA

Hona hemen indarkeria eragin dezaketen gizonen profila

Gazteak, ikasketadunak, psikiatrak, bikotedun langabeak, ikasketa gabeak, exekutiboak, dibortziatuak, bikotekide gabeak, heterosexualak, dirudunak, ikasleak, aspergarriak, sinpatikoak, gogorak, menpekoak, ume gabeak, lau umedunak, lagun gabeak, klasikoak, modernoak, sinismendunak, isilak, berritsuak, ligoiak, dantzan dakitenak, txateatzen dutenak, ikasle onak, serioak, koadrilan ibiltzen direnak, bakartiak, altuak, txikiak, zehatzak, asteburuetan ateratzen direnak, etxean laguntzen dutenak, diskretoak, auzokoari laguntzen diotenak, agurtzen ez dutenak, mendia gustuko dutenak, kirola egiten dutenak, zinemara joaten direnak, dutxatzea gustuko ez dutenak...

ARRISKUA EMAKUMEAK KONTROLATU NAHI IZATEA DA!!!!



Beldur barik

"Gorrotoa zure begiradan isladatzen da ezintasuna dakarkit burura, denbora luzez daramazu bakarrik **zulotik atera ezinik.....IXILIK!!**

gorrotoa zure begiradan mantentzen da irtenbide bat bilatzeko ordua da, aments gaizto hontatik esnatzen zara goiza iritsi da ta!!!

Begi distiratsu negarti horiek ez itzazu itxi, ordua iritsida, eguna heltzear da Berdintasuna nagusituko da egun batean ez dago urruti, laster amaituko da..... **ZURE MOMENTUA IRITSI DA!!**

Gure amatsa laster egi bihurtuko da, orain arteko sufrimendua bukatzean mundu berri bat hastear dagooooo **gogoratuuu....EZ ZAITZATELA ZAPALDU!!**

Begi distiratsu negarti horiek ez itzazu itxi, ordua iritsida, eguna heltzear da Berdintasuna nagusituko da egun batean ez dago urruti, laster amaituko da.....

Begi distiratsu negarti horiek ez itzazu itxi, ordua iritsida, eguna heltzear da Berdintasuna nagusituko da egun batean ez dago urruti, laster amaituko da..... **ZURE MOMENTUA IRITSI DA!!"**

Sin Miedo

El odio se refleja en tu mirada, me recuerda a la impotencia, llevas mucho tiempo sola **sin poder salir del agujero...CALLADA!**

El odio se mantiene en tu mirada es la hora de buscar una salida, te despiertas de esta pesadilla **iiiPorque ya ha llegado la mañana!!!**

No cierres esos ojos llorosos Ha llegado la hora, el día está a punto de llegar La igualdad reinará algún día No está lejos, pronto se acabará... **iHA LLEGADO TU MOMENTO!**

Nuestro sueño pronto se hará realidad Cuando se acabe el sufrimiento Un nuevo mundo está a punto de empezar **Recuerda...QUE NO TE PISEN!!**

No cierres esos ojos llorosos Ha llegado la hora, el día está a punto de llegar La igualdad reinará algún día No está lejos, pronto se acabará...

No cierres esos ojos llorosos Ha llegado la hora, el día está a punto de llegar La igualdad reinará algún día No está lejos, pronto se acabará... **iHA LLEGADO TU MOMENTO!**



UNITATE DIDAKTIKOA: ABATARRAK

Helburu Nagusiak

- Neska-mutilek euren ahalmenak eta abildadeak **aztertzea** indarkeria sexistaren aurkako borrokan eragile aktiboak izan daitezen.
- Neska-mutilak **kontutaratzea** talde-sarea osatzeak dituen aukerez eta indarraz emakumeenganako indarkeriaren aurkako borroka zabaltzeko.

Unitatearen helburu zehatzak

- Partehartzaileei tresnak ematea indarkeria sexistaren aurkako borrokan duten **rol aktiboa** eta protagonista identifikatzeko.
- **Lankidetz**a, **konpromisoa** eta **sareak sortzea** bezalako baloreak sustatzea eta tresnak ematea euren eraginak ezagutzeko.
- Partehartzaileei tresnak eta gakoak ematea **indarkeria sexista** faktore anitzeko arazo bezala aztertzeko.
- Hausnarketari eta lanari jarraipena emateko aukera sustatzea, **Abatarrak proiektuaren** bitartez.

Metodologia

Unitatean Abatarrak Proiektuan oinarritutako lan proposamena duzu. Hasierako ariketan, talde teknika erabiltzea proposatuko dizugu, neska-mutilek parte hartzeko eta taldearen indarraz konturatzeko indarkeria sexista moduko arazo zaila lantzeko orduan. Bigarren ariketan, indarkeria aztertzen laguntzeko proposamena duzu, arazoa neska-mutilengana hurbiltzeko.

Lanari etekin handiagoa ateratzeko, irakurri Abatarrak proiektua, eta begiratu blogean datozen esperientziak:

avatarberdintasuna.blogspot.com

Egokitu proiektuaren helburuak eta metodologia taldearen beharrei. Horrela, azterketa denbora luzatu egingo da, ez da saio bakarra izango. Helburua neska-mutilak benetako protagonista bihurtzea da.

Erabili osagarri guztiei etekin handiena ateratzeko ahalmena:

- **Bakarkako Aldea:** Neska mutilek tresnak behar dituzte indarkeria sexista euren arazoa ere badela ulertzeko, ez dela besteei gertatzen zaien arazoa. Euren burua biktima edo erasotzaile ikustea ez da gustuko, eta, hori dela eta, batzuetan, arazoa ukatu egiten da, edo garrantziarik ez zaio ematen, nahiz eta hausnartu ez arazoari buruz. Indarkeria sexista neska-mutilen adinaren arabera egokituta aurkezten badugu partehartzaile bakoitzak bere arrazoiak edo zergatiak bilatu ahal izango ditu, eta, beraz, bakar galdera egin: zer egin dezaket nik?
- **Taldearen Aldea:** Taldeari etekinik handiena atera behar diogu, oso garrantzitsua da. Lan taldea leku aproposa da indarkeria sexista denon arazoa dela entsaiuak egiteko eta probak egiteko. Horrexegatik, galderak eta erantzunak denen artean aurkitu behar dituzte. Neska-mutil gazteentzat, taldea erreferentziarik garrantzitsuena da, eta lan eremu horretan, unitatearen bitartez, protagonista bilaka daitezten bultzatzea da. Ez dugu nahi indarkeria sexista ulertzea hausnartu behar duten arazoa bezala, nahi dieguna da lagundu, eurek, urratsez urrats, arazoari hurbil daitezten eta irtenbideak aurki ditzaten.
- **Abatarrak Proiektua** Proiektuaren bitartez, indarrak bildu ditugu gazteentzako kanpaina baten, gazteen aurkako indarkeria sexista prebenitzeko. Horretarako, ikerketa-ekintza prozesua abiatu da herrietan, "Berdur Barik" izenekoa. Kanpainaren helburua gazteengana heltzea denez, proiektuan neska gazteek parte hartze aktiboa izan dute. Horrela, ikertu ahal izango dugu zein den euren mezua, ondoren, mezuari erantzun egokia emateko. "Abatarrak" proiektua jolas moduan egindako ikerketa prozesua da: ikertzaileak neskak eurak dira. Ikerketaren helburua ez da neskek indarkeriari buruzko informazio berria ematea, gaia eurekin lantzeko gakoak lortzea baizik, eta, era berean, eurek euren kabuz ikastea indarkeriak identifikatzen.

Azterketarako denboraren, adinaren eta partehartzaileen arabera, ariketa desberdinak proposatu dizkizugu, lana arlo batean edo bestean kokatzen dutenak. Fitxa bakoitzak lan proposamen orokorra du, taldearen behar zehatzei egokituko dena, eta baita aldaeren proposamenak ere, gehien komeni zaizuna erabiltzeko.

1 FITXA: INDARKERIA SEXISTARI ERANTZUNA AURKITZEN... ABATARRAK PROIEKTUA

Gaia	Helburu Zehatzak	Denbora	Jarduera Mota
INDARKERIA SEXISTA: DENON GAUZA DA	<ol style="list-style-type: none"> Lana taldean egitea bultzatzea. Konpromisoa eta lankidetzaz bezalako baloreak erabiltzea, sare lanaren bitartez. Indarkeria sexistari buruzko gaien inguruko motibazioa sustatzea Abatarrak Proiektua ezagutaraztea. 	<p>Gutxienez: 2 ordu.</p> <p>Gehienez: 4 ordu tartean atseden hartuta.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Talde lana - Eztabaidatu talde handian
Xede-taldea	Lantzeko oinarrizko kontzeptuak	Beharrak	
<p>15-19 urteko neska-mutilentzat.</p> <p>20-25 urteko neska-mutilentzat.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Indarkeria sexista faktore anitzeko arazoa da. Hori dela eta, ikuspuntu askotatik azter daiteke. Neska-mutilek eurek aukeratuko dituzte hain errealitate zailari nola hurbildu - Abatarrak proiektuak neska-mutil gazteak aldaketarako eragile egin nahi ditu. Beharrezkoa da jakitea zertaz dauden arduratuta, informazio baliotsu moduan batu, eta horren gainean lanean aritzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Kartulinak eta Errotuladoreak - Orriak eta boligrafoak - Abatarrak materiala - Abatar proiektua 	

Prozedura

- Saioaren hasieran Abatarrak Proiektua aurkeztuko dugu labur-labur. Proiektua unitate honetako materialetan duzu. Baliabide teknikoak badituzu, garrantzitsua da proiektuaren lan prozesuari buruzko bideoren bat ikustea, proiektuaren blogean duzuna. Horrela, proiektuan parte hartzen dabiltzan beste gazte batzuekin identifikatuko dira, eta ulertuko dute ikerketa lana polita eta dibertigarria izan daitekeela. [10 minutu]
- Egin beharrekoa aurkeztuko dugu Abatar izateko aukera bezala: balore handiko eragile ikertzeile bereziak indarkeria sexistaren munduan. Eurek dakite inork baino hobeto nola somatzen eta sentitzen duten gazteek arazo hori. Garrantzitsuak dira euren ahotsa eta iritziak gai horretan. Beraz, adi egongo gara eta gustura jasoko ditugu taldeak mahaigaineratutako galdera guztiak. .
- Taldean 7 lan talde egingo ditugu. Talde bakoitzak honako izena izango du: BELDURRA, MAITASUNA, KOADRILA, SEXUA, FAMILIA, BEHARRAK ETA SUPERHEROIA (Izenak ikerketaren atalak dira)
 - ➔ Partehartzaile gutxiago badira, taldean 3 ekipo egin, honako izenekin: MAITASUNA ETA SEXUA, KOADRILA ETA FAMILIA, BELDURRA ETA SUPERHEROIAK. BEHARRAK taldea desagertu egingo da, eta geroago esango dizugu nola banatu ataleko galderak.
 - ➔ Bikoteak ere egin ditzakezu, gaika, edo partehartzaile gutxi badituzu, bakoitzak atal bat hartzea du.
- Taldeak osatu ondoren, banatu galderak. Fitxa honen edukietan dituzu. [5 minutu]
 - ➔ Taldea 3 zatitan banatu baduzu, BEHARRAK ataleko galderak honela banatu: 1.a eta 2.a talde batentzat, 3.a bestearentzat, eta 4.a gelditzen den taldearentzat.



- Taldeek [40 minutu] izango dituzte galderak lantzeko.
- Ondoren, taldeek [30 minutu] dituzte kartulina futurista egiteko (ikus fitxaren edukia)
- Amaitzeko, taldeek kartulina erakutsi eta lan esperientzia eta ondorioak azalduko dituzte. [30 minutu]

Tailerraren azken minutuak kartulina futuristekin zer egin erabakitzeko erabil dezakezu. Hezkuntza zentrora eraman erakusteko? Udal Aretoan erakutsi? Plastikoa jarri gainetik eta plazan zintzilikatu? Argazkia atera eta blogean jarri? Edo...

- ➔ Ikerketaren emaitzak neska-mutil gehiagori ere bana dakizkieke, era berean, aldaketarako eragile izan daitezen.
- ➔ Ekitaldiren bat ere antola daiteke, lanean parte hartu duten neska-mutil guztiek emaitzak partekatzeke.

Aldaerak

20-25 urtekoentzat

- Taldea bi zatitan banatuko dugu, ahal bada mistoak. Azalduko dugu ikerketa txikia goazela egitera eta horretarako super ikerketarako bi talde behar ditugula. Talde bakoitzak bere Abatarra izango du (ahal bada, mutila eta neska). [5 minutu]
- Abatarraren misioa da taldearen ikerketaburu izatea eta informazioa batzeko prozesua gidatzea. Horretarako, indarkeria sexistari buruzko galderak ditu. Talde bakoitzak [5 minutu] izango ditu aipatutakoa egiteko, eta behin eta berriro gogoratuko diegu zein misio garrantzitsua duten.

- Abatarrak aukeratu ondoren, lana banatuko da. Talde bakoitzak lanerako toki bat beharko du, mahaiak eta aulkiak beharko ditu (ikerketa zentroa), orriak, boligrafoak, kartulinak eta koloreetako errotuladoreak. Talde bakoitzaren misioa da indarkeria sexistari lotutako alorrak ikertzea, eta ikerketa eremua aldameneko taldea izango du. Hauxe egin beharko dute:
 1. Honako hitzak idatzi behar dituzte: BELDURRA, MAITASUNA, KOADRILA, SEXUA, FAMILIA, BEHARRAK ETA SUPERHEROIA. Talde bakoitzak ikerketa ildo propioa izan behar du, aipatutako hitzei buruzkoa. Horrek esan nahi du 5 galdera prestatu behar dituztela (hitz bakoitzeko galdera bat). Galderen bidez, hitzaren eta indarkeria sexistaren arteko lotura ikertuko dute (adibidez: posible da neska bati tratu txarrak eragitea eta, aldi berean, berarekin maiteminduta egotea? Ze ondorio du indarkeria sexistak familian? Etab.). Taldeak ikerketarako garrantzitsuak diren bost galdera adostu beharko ditu. [45 minutu]
 2. Talde bakoitzaren Abatarra adi egongo da baina ezin izango du ekarpenik egin, bere lana aldameneko taldera joan eta taldeko galderak egitea izango delako. Hori dela eta, txartel baten galderak egitean sortutako hausnarketak jasoko ditu, argi izan ditzan galderak. Izan ere, aldameneko taldean argitu edo azaldu egin beharko ditu galderak. Galdera guztiak prest daudenean, taldeek Abatarra misio berezian bidaliko dute, ikerketa beste taldean jarraitzeko.
 3. Berriro, talde bakoitzak [45 minutu] izango ditu taldera heldu berri den Abatarraren galderei erantzuteko. Abatarrak erantzunak jaso eta bueltan itzuliko da bere taldera.
 4. Azkenik, Abatarrak aurkikuntza guztien berri emango die taldekoei, eta oraingoan, misioa izango da batutako ideia guztiak kartulinan jartzea. Lan hori taldeko partaide guztiek egingo dute, Abatarra barne, eta bakoitzak nahi duen moduan egingo du (ondo marrazten duenak kartulina marraztuko du; beste batek idatzi egin dezake, edo apaindu, edo izenburua jarri, etab). [15 minutu]

5. Kartulinak horman zintzilikatuko dira, mundu guztiak ikus ditzan taldean egindako lanaren emaitzak. Horrela, talde bakoitzak baloratu egingo du euren ideiak ondo jarri dituzten eta zer desberdintasun dagoen galderen eta euren erantzunen artean. Helburua informazioa partekatzea eta ikuspuntu asko daudela ikustea da. [10 minutu]

➔ Denboraren arabera, misioari hitzak kendu edo galdera gutxiago prestatu.

Dinamika hobeto ateratzeko oharrak

-Dinamikaren protagonistak neska-mutilak dira. Eurek aurkitu beharko dituzte erantzunak taldean edo eurek egin beharko dituzte galderak gauzatzeko lana.

- Garrantzitsua da taldearen indarra azpimarratzea. Taldeak anitzak dira, eta indarkeria sexistaren errealitateari hurbiltzeko ikuspuntu desberdinak egon daitezke, egokiagoak ala ez, baina denak balekoak.

- Landuko dira, bakar-bakarrik, neska-mutilek mahaigaineratutako gaiak, hau da, taldean sortutako gaiak.

- Beharrezkoa da errespetu giroa lortzea dinamikan. Ez ditugu galderak eta erantzunak aztertu behar, batu baizik, informazio baliotsua baitira. Garrantzitsua da taldeari honakoa azpimarratzea: denok hausnar dezakegu indarkeria sexistari buruz, eta informazioa eta erantzunak bilatzea eraginkorragoa da taldean egiten badugu.

- Dinamikak abian jartzen du neska-mutilek ideiak bildu eta partekatzeko mekanismoa. Helburua mekanismoak funtzionatzea da, kontura daitezen sortutako sarearen indarraz. Mekanismoa hobeto ibiltzeko, aitortu egin ditzakegu egindako ahalegina eta bildutako informazioa.

- Jarduerak erritmo arina izan behar du, eztabaidak ezin dira gehiegirik luzatu. Kartulinen bidez euren lanaren emaitza ikusi eta aitortuko dute, euren kezkek eta ikuspuntuak adierazten duen horma irudia delako. Dinamizatzaileak kontuan izango ditu, eta, horretarako, partehartzaileei horma irudiak azaltzeko eskatuko die (jakinmina izan, zerbait argitzeko eskatu, etab.).



1 FITXAREN EDUKIAK

HITZ BAKOITZAREN GALDERAK

GENERO INDARKERIA ETA BELDURRA:

Nahi dugu jakin zer ematen dizun beldurra:

1. Esaiguzu 3 egoera edo inguru beldurra ematen dizutenak, emakume gaztea zarela eta, zure aurka eragin daitekeen indarkeriari lotutakoak.
2. Beldurra ematen zizuten gauzez, egoerez, pertsoez pentsa dezakezu, nahiz eta gaur egun gaindituta izan, beldurrik izan ez
3. Gauzez bakarrik zoazenean, zein da zure jarrera?
4. Seguritatea ematen dizuten gauzak, ekintzak, trukoak, partekatu nahi dituzunak.
5. Beste kulturek, beldur handiagoa ematen dizute? Zure ustez, zure kultura besteak baino biolentoagoa da ala ez?
6. Non eta norekin egiten duzu hizketan zure beldurrei buruz?

GENERO INDARKERIA ETA KOADRILA:

1. Zure inguruan, zer da aholkatzen dena erasoak daudenean?
2. Denok duzue ideia bera eraso zer denari buruz?
3. Neskak errudun sentitzen dira eraso jasan eta gero?
4. Zer egiten da erasotzaileen aurka?
5. Kolektibo edo talde bateko partaide sentitzen zara?
6. Genero indarkeria dela eta, besteen iritziekin bat egiten duzu ala zeureak defenditzen dituzu, nahiz eta desberdinak izan?



GENERO INDARKERIA ETA SEXUA:

Gau *benetan arraroaren* adibidea emango dizugu:

Atzo gauen lagunekin atera zinen. Maria hirukin morreatu zen eta euretariko batekin joan zen. Miren mutil baten atzetik ibili zen, baina ez zen ausartu berarengana joaten, Joneri sekulako txapa eman zioten mutilek eta euretariko batekin kristona izan zuen, Ainarak neska batekin ligatu zuen, Rakel mutilagunarekin joan zen eta Flor arin etxeratu zen, jolas sexualak erosi zituela eta probatu egin nahi zituela eta.

1. Zer diozu Maria, Miren eta Rakeli buruz?
2. Joneri txapa eman zioten mutilei buruz, nola bizi izango zenuen zuk egoera eta zer egongo zenuen?
3. Zer diozu Ainarari eta Flori buruz?
4. Proposatu dizugun adibidea ez badator bat zure errealitatearekin, arlo sexuala kontuan hartuta, nolakoa da zure larunbat gaua? Zein da zure iritzia?

GENERO INDARKERIA ETA FAMILIA:

Hau suposamenen txartela da. Pentsatu nola jokatuko duen zure familiak...

1. Neskalguna edo mutilaguna baduzu
2. Neskalguna edo mutilaguna etxera eramaten baduzu
3. Gaueko ligea etxera eramaten baduzu
4. gaya bazara
5. drogak hartzen badituzu
6. Bonba sexuala eginda ateratzen bazara
7. Depilatzen ez bazara eta apaintzen ez bazara
8. Erasoren bat jasan baduzu
9. Familiako edo lagunaren batek molestatu egin bazaitu.



10. Indarkeriaren gaia ateratzen bada, nola jokatuko dute, ze erreakzio izango dute?
11. Ez badizue uzten ateratzen, uste dutelako 9ak eta gero oso arriskutsua dela, eta ez dute gauza bera egiten mutilekin.

GENERO INDARKERIAREN AURKAKO SUPERHEROIA:

Gaur goizean esnatu zarenean, konturatu zara superheroia zarela, neska berezia eta botere izugarriekin. Hori dela eta, botere horiei buruzko elkarrizketa egingo dizut:

1. Jakin dugunez, oso ondo konpontzen zara mutilek zurekin edo lagunekin sartzen direnean, neskak zaretelako edo janzteko eragatik, etab... Kontaiguzu nola egiten duzun ondo ateratzeko eta bestea begi bistatik kentzeko.
2. Ze aholku emango zenieke kalean edo etxean indarkeria jasaten daudenei?
3. Zer egingo zenuke behingoz gazteen arteko indarkeria ezabatzeko?
4. Inguruan, baduzu heroi eredurik?
5. Bestelako zein botere beharko zenuke?
6. Zuri eta zure ingurukoei burura datorzkizuen tresnak indarkeria egoerak konpontzeko.

GENERO INDARKERIA ETA MAITASUNA

1. Nolako neskak edo mutilak dituzu gustuko?
2. Zer da zuretzat errespetua eta berdintasuna bikotean?
3. Berea sentitzen zara? Parekoak zarete? Betebehar berdinak dituzue?
4. Baten baten neskalaguna modukoa zara, edo mutilaguna duen baten baten modukoa?
5. Uste duzu zure janzteko, mugitzeko, pentsatzeko erek jarrera biolentoak erakar ditzaketela?
6. Jeloskor jartzen zara..
7. Jeloskor jartzen da...



GENERO INDARKERIA ETA BEHARRAK:

1. Zein baliabide ezagutzen duzu?
2. Zein baliabide duzu eskura inguruan?
3. Gogoratzen duzu ukitu eta hausnartu eragin dizun prebentzio kanpaina, berri edo gauzarik?
4. Irudikatu erasotako emakumeentzako prebentzio eta abegi super zentroa, eta erasotzaileentzako prebentzio eta erretentzio zentroa.

KARTULINA FUTURISTA

Zure ikuspegitik pentsatu slogan, irudi edo esaldi bat emakumeenganako indarkeria ezabatzen lagundu dezakeena. (lagungarri izan dezakezu pentsatzea nori esango zeniokeen)



2 FITXA: BELDUR BARIK

Gaia	Helburu zehatzak	Denbora	Jarduera mota
<p>Indarkeria sexistaren aurrean</p> <p>ZERI DIOTE BELDURRA NESKEK? ZERI DIOTE BELDURRA MUTILEK?</p>	<p>1. Antzematea eraso sexisten aurrean neskek eta mutilek dituzten beldurrak.</p> <p>2. Beldurraren funtzioa aztertzea nesketan eta mutiletan.</p> <p>3. Eztabaidatzea nola eragiten dien beldurrak neskei eta mutilei, desberdintasunak eta antzekotasunak.</p>	<p>Gutxienez: ordu bat eta 30 minutu.</p> <p>Gehienez: 2 ordu.</p>	<p>-Talde dinamika</p> <p>- Lana talde txikietan.</p> <p>-Eztabaida talde handian.</p>
Xede-taldea	Landu beharreko oinarrizko kontzeptuak	Beharrak	
<p>15-19 urteko neska-mutilentzat.</p> <p>20-25 urteko neska-mutilentzat.</p>	<p>- Beldurra emozioa da, benetako edo ustezko, gaurko edo etorkizuneko arriskuaren pertzepzioak sortutakoa. Beldurra bizirauteko eta defentsarako mekanismoa da, egoera txarretan arin eta eraginkor erantzuteko. Arriskuari aurre egiteko prestatzen gaitu.</p>	<p>- Galdera sorta: Eta zuk...zeri diozu beldurra?</p> <p>- Talde lanerako fitxa</p>	



<p>Lanaren nondik norakoa berdina izango da bi adin taldeentzat, baina laguntzarako materiala berezia izango da talde bakoitzarentzat (ikus aldaerak)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ikuspegi horretatik, beldurra tresna aproposa da indarkeria sexistari aurre egiteko. Batzuetan, biktima edo erasotzaile izateko beldurrak eragiten digu prest ez egotea defenditzeko eta EZ! esateko. - Sugeei beldurra izateak, esaterako, ihes egitea eragiten digu, sugeak haginkadarik ez egiteko. Baina, zeintzuk dira eraso sexisten aurrean ditugun beldurrak? - Beldurraren adierazle guztiak ezagutzeak eta aitortzeak helburu bakarra du, bai nesKentzat bai mutilentzat: indarkeria sexistaren aurrean arriskuaren alarma pizten du eta defentsa egokia prestatzen laguntzen du. 	<p>Aldaeretakako:</p> <ul style="list-style-type: none"> - kartulina, errotuladoreak, guraizeak, kola... - Internetera sarrera duen ordenadorea, kanoia eta proiektorea.
---	---	--

Prozedura

- Taldeari beste misio bat proposatuko diogu: Apur baten [15-20 minutu] beldurra ikertu beharko dute. Beldurra zer den eta bizi irauteko funtzioa azaldu ondoren, partaide bakoitzari galdera sorta bat banatuko diogu. Gainerako partaideen artean, galdera sortan datozen suposamenei beldurra dion norbait aurkitu beharko dute, gutxienez bat. Pertsona aurkitzen dutenean, bi gauza idatzi beharko dituzte: 1. X bat aurkitu dutelako beldur hori duen norbait eta 2. neska ala mutila den. Azpimarratuko dugu garrantzitsuena



galdera sortako item bakoitzeko pertsona bat aurkitzea dela. Astia badugu, pertsona gehiago aurkitzen saiatuko gara.

- "Landa Lana" eta informazioa batzea amaitu ondoren, taldea ekipoka banatuko dugu (partaideen arabera). Bakoitzak bere taldean galdera sorta erakutsi eta aurkikuntzak partekatuko ditu. Taldearen lana 3 aspektu zenbatzea izango da. Lana errazteko, lan fitxa bana emango diogu talde bakoitzari: [10minutu]
 1. Zenbat neskak adierazi zuten beldurra item bakoitzeko.
 2. Zenbat mutilek adierazi zuten beldurra item bakoitzeko.
 3. Inork aitortu ez zituen beldurrak.

- Lana egiteko, taldeak zenbatzeko pertsona bat aukeratuko du, lan fitxa hartu eta zenbatzen joango dena zenbat mutil eta neska dauden taldean bildutako galdera sortetan. Baita idatziko du ere zenbat item gelditu diren zuri (hau da, inork aitortu ez zituen beldurrak)

- Aipatutakoa amaitu ondoren, taldeek aurkikuntzak partekatuko dituzte. Eskema bat egin dezakezu arbelean, eta emaitzak bertan jarri. Orain, helburua eztabaida sortzea da [30 minutu] taldeko nesken eta mutilen beldurraren pertzepzioari buruzkoa. Horretarako, eskatu talde bakoitzari datuekin hipotesia egiteko (esaterako, talde batek ondoriozta dezake emaitzak kontuan izanda, mutilek ez dietela beldurrik erasoei, eta neskek, ostera, bai. Euren hipotesiak eztabaida interesgarria piztuko dute, honakoak lortzeko:
 1. Generoaren araberako beldurraren pertzepzio desberdina
 2. Gure beldurren bizirik irauteko funtzioa aztertzea.

Aldaerak

15-19 URTEKOAK:

1 ALDAERA:



15-17 urtekoen taldeetan aproposa da ikerketa beldurrak antzezten egitea. Hori gauzatzeko, aukeratu adin honetarako galdera sortako beldur batzuk eta zatitu taldea bitan (neskena eta mutilena) eta eskatu mutilei asmatzeko neskak antzezten dabiltzan beldurrak, edo alderantziz...

Gogoratu taldeari eskatzen diozunean beldurren bat antzezteko, antzerkia taldean egin behar dutela; taldeak astia izango du egoera bat irudikatzeko, eta partaide bakoitzak egoeraren elementu bat antzeztuko du. Beste taldeak zein beldur den asmatu beharko du, kontuan harturik nola dauden kokatuta, gorputzaren mugimenduak, etab. Asmatu behar duen taldeari lagundu ere egin diezakezu, honelako galderak eginez: mugitu egiten dira ala ez? non islatzen da beldurra? Zer dagoela pentsatzen uste duzue?...

20-25 URTEKOAK:

1 ALDAERA:

Euskarri teknikorik baduzu, interesgarria litzateke Abatarren blogean nabigatzea taldearekin. Bertan irudiz eta bideoz osatutako esperientzia duzu, taldearekin bat egiteko aproposa. Horrekin beste ikerketa bat egiteko anima ditzakezu, edota bideoa grabatzea edo argazkiak ateratzea bultza dezakezu, beldurraren ikerketa oinarri izanda. Neska-mutilak benetan trebeak dira teknologia berriak erabiltzen, eta garrantzitsua da ikerketa lana sustatzea euren bitartez.

2 ALDAERA:

Astirik baduzu, proposatu taldeari bi colage egitea, emaitzak islatuko dituztenak. Taldeko batzuek neskek sarri izaten duten beldurren bat aukeratuko dute eta besteek mutilek izaten dutena. Aproposak izan daitezke bi kartulina handi, hiru zatitan banatuko dituzunak:

1. Beheko aldean talde bakoitzak indarkeria sexistarekin zerikusia duen beldur bat islatuko du era grafikoan (adibidez, eraso jasateko beldurra). Horretarako marraztu, serigrafiatu, argazkiak jar ditzakete (Interneten aurki ditzakezunak ere eraman



ditzakezu) Ideia da beldurra emozioa era grafikoan adieraztea.

2. Erdiko aldean, beldur horren inguruko ohiko pentsamenduak bilduko dituzte, adibidez: " ez naiz bakarrik ibili behar gauean", "Eraso egiten badidate, ez naiz ausartuko inori kontatzen")
3. Goiko aldean beldur horri aurre egiteko jokamoldeak jarriko dituzte. Atal horretan ikertu ahal izango duzu zein neurri duten euren burua babesteko indarkeria sexistaren aurrean.

Ideia da beldurra antzemateko hiru bide desberdin identifika ditzatela: gure gorputzean ikusten duguna, pentsatzen duguna eta nola jokutzen dugun beldurraren aurrean. Animatu beldurrak antzemateko sistema hori egunero erabiltzera.

Dinamika hobeto ateratzeko oharrak

- Hausnarketari jarraipena emateko, *Beldur Barik* Gidari buruzko Unitate Didaktikoa erabil dezakezu.
- Soilik ideia batzuk garatu ditugu ikerketako hitz batean sakontzeko, baina gauza bera egin dezakezu gainerakoekin.

Gida ugari dituzu maitasunari, sexualitateari eta indarkeriari buruzko ariketak eta materialak proposatzen dizkizutenak:

Ni ogros ni princesas

http://tematico.asturias.es/imujer/upload/documentos/guia_no_ogros_ni_princesas1069.pdf

Edukien eta test-en arloan

www.geubiok.com

Eta, mesedez, animatu taldekoak ikerketaren emaitzak partekatzen, blogaren bitartez:

<http://avatarberdintasuna.blogspot.com/>





2 FITXAREN EDUKIAK

TALDEARENTZAKO GALDERA SORTA: 15-19 URTE

Galdera sorta: Eta zuk, zeri diozu beldurra?

Galdera sorta honekin eta boli batekin zure beldurrak aztertzeko moduan egongo zara. Hurbildu eta bota galderak: Eta zuk, beldurra diozu...

1. ...armiarme edo sugeei?
2. ...lagunek zu baztertzeari?
3. .. zuretzat garrantzitsua denari baten batek min emateari?
4. ... gauez kaletik bakarrik ibiltzeari argi gutxiko tokietan?
5. ...baten batek zuri buruzko txutxumutu faltsua botatzeari?
6. ... gaizki tratatuko zaituen baten batekin maitemintzeari?
7. ... ezagutzen ez duzun toki baten galtzeari?
8. ... zure bikotekideak (ez baduzu, pentsatu baduzula) gezurra esan eta tratu txarrak eragin dizkiozulako zu salatzeari?
9. ... eraso eginez gero, zure burua defenditzen ez jakiteari?
- 10... Erasoa jasaten duen baten bat defenditzen ez jakiteari?



TALDEARENTZAKO GALDERA SORTA: 20-25 URTE

Galdera sorta: Eta zuk, zeri diozu beldurra?

Galdera sorta honekin eta boli batekin zure beldurrak aztertzeko moduan egongo zara. Hurbildu eta bota galderak: Eta zuk, beldurra diozu...

1. ...arratoiei edo labezomorroi?
2. ...EZ esateari!!?
3. .. zure lagunik onenari edo ahizpari norbaitek eraso egiteari?
4. ... gauean kalean bakarrik ibiltzeari argi gutxiko tokietan?.
5. ...zu konturatu gabe, bikotekideak zu kontrolatzeari?
6. ... borroka baten erdian ikusteari, ukabilkadak ezker eta aire dabilzanean?
7. ... egunen baten interneten konpromisozko argazkiren bat agertzeari?
8. ... eraso sexuala jasan duzula kontatzeari?
9. ... harremanean gusturen zaudenean besteak uzteari?
10. ... haurdun zaudela jakiteari?



TALDE LANEKO FITXA:

	BELDURRAK	MUTILAK	NESKAK
1			
2			
3			
4			
5			
6			
7			
8			
9			
10			

Ondorioak eta hipotesiak:

NESKEK, ZERI DIOTE BELDURRA?

MUTILEK, ZERI DIOTE BELDURRA?

Unitate didaktikoa: **TXO! KONTROLATZEN? KOMIKIA**

Helburu Orokorrak

- Neskek eta mutilek harreman heterosexualak **gizonezkoen kontrol-jarrerak** ezagutzea eta aztertzea, baita kontrol jarrera horiek emakumeen jarrerak zelan mugatzen dituzten ezagutzea eta aztertzea ere.
- Mutilek kontrolatzeko jarreraren **ondorioei** buruzko hausnarketa egin dezatela, eta ondorio horiei erreparatzea: isolamendua, beste erlazio batzuk galtzea, bazterturik sentitzea...
- Neska-mutilek **jokabide estrategikoak** garatzea kontrolatzeko jarrera horiei aurre egiteko eta euren inguruan sufritzen dituztenei laguntza emateko.

Helburu Zehatzak

- ▶ Parte-hartzaileei gizonezkoek kontrolatzeko erabiltzen litzaketen **jokabideak antzemateko** elementuak ematea.
- ▶ Hausnarketa eragitea honako kontuei erreparatzeko: **noiz eta zertarako** erabiltzen dira jokabide horiek? Zer eragin daukate neskeengan?
- ▶ **Kontrolean oinarrituriko harremanak** aztertzeko kritika-irizpidea bultzatzea.
- ▶ Parte-hartzaileei **berdintasunezko harremanen** ezaugarriak antzemateko baliabideak ematea.
- ▶ Harremanetan egon daitezkeen kontrolatzeko jokabideak **arbuiaztzeko ahalmena** bultzatzea.

Metodologia

Unitate honetan *Txo! kontrolatzen?* komikia lantzeko proposamenak aurkituko duzu. Lehenengo proposamenean komikiko hainbat esaldi eta ideia lantzeko teknika aurki dezakegu; bigarreanean, ordea, komikia bera izango da lan-tresna.

Lan honi aprobetxamendurik handiena ateratzekotan, irakur ezazu komikia behin baino gehiagotan, bertako egoerak eta protagonistak ondo ezagutzeko, eurak izango baitira proposatzen ditugun ekintzetako aztergaiak eta ardatzak.

▣ **Protagonistak:** neska eta mutila identifikatuko ditugu. Komikia lantzen jarraitzeko, banaka zein taldeka, aparteko ekintza batzuk eskainiko ditugu: bakoitzari izen bat emateko eska diezaiokegu, eta bakoitzaren historiari buruzko kontu batzuk asmatzeko (zenbat urte daukaten, zertan aritzen diren, ikasten duten eta zer ikasgai duten gustuko, lan egiten duten eta zertan, e.a.)

Honelakoak lantzeko aukera izango dugu: mutilak zelan erabiltzen duen kontrola eta neskak zelan erreakzionatzen duen.

Neska eta mutil nagusiagoak badira, kontrolatzeko jokabideen atzean egon litezkeen sentimenduei eta pentsamenduei erreparatu ahal diegu.

▣ **Kontrola:** istorioan pertsonifikaturik ez badago ere, protagonista bihur dezakegu, eta ondoren honako kontuak aztertu: zelan sentitzen den kontrola erabiltzen duena; zelan sentitzen den kontrola sufritzen duena; zelan espresatzen den kontrola sufritzen duena (zer esaldi mota erabiltzen duen, keinuak eta abar); zein den kontrolaren funtzioa harremanetan (kontrolak zer uzten dion egiten neskari eta zer mutilari, eta zer ez dien egiten uzten)

Neska-mutil nagusiekin honako hausnarketa proposa dezakegu: egoera aldatzen ez bada noraino ailega litzateke arazoa?; zer izango litzateke beharrezkoa jokabide hau geldiarazteko?

▣ **Ingurua:** Neskaren eta mutilaren lagunak izango dira. Ingurukoek kontrolaren aurrean zer nolako erreakzioa erakusten duten aztertzeko sailkapen hau erabil dezakegu: alde batetik, kontrola onartzeko jokabideak (nortzuek erabiltzen duten jokabide hau); bestetik, kontrola arbuiatzeko jokabideak (nortzuek arbuiatzen duten). Baliteke parte-hartzaile batzuk ez izatea iritzia argi eta garbi adierazteko kapazak; ondo legoke pertsona horiek talde bat osatzea, eta ezaugarri batzuk aztertzea: osatzen dutenen adina, sexua, esperientzia, lagun-taldea eta abar. Honela aztertu egingo dugu euren iritzia emateko dituzten arrazoiak.

📖 **Harremana:** Parte-hartzaile bakoitzak, mutilaren zein nesken lekuan egonez gero, zer nolako harreman edukiko lukeen azter dezakegu. Amaitzeko, kontrolean oinarrituriko harreman baten eta berdintasunezko harreman baten arteko aldea azter dezakegu, eta bereizten dituzten elementuei erreparatu.

1. FITXA: Maitatu nahi ala kontrolatu nahi?

Gaia	Helburu zehatzak	Denbora	Ekintza-mota
Indarkeria sexista eta KONTROLA	<ol style="list-style-type: none"> Gazteen arteko bikote-harremanetako kontrolari neska eta mutilek zer irizten dioten jakitea. Bikote harremanetan jokabide horiek zer eragiten duten aztertzea. Jokabide horiek normalizatzek edota euren eraginari ardura kentzeko dakarren arriskuari buruzko eztabaida sortzea. 	<p>Gutxienez: 45 minutu.</p> <p>Gehienez: Ordu eta erdi</p>	<p>- Talde-dinamika: "Termometroa"</p> <p>-Eztabaida talde handian</p>
Xede-taldea	Lantzeko oinarrizko kontzeptuak	Behar duguna	
<p>15 eta 19 urte bitarteko neska-mutilak.</p> <p>20 eta 19 urte bitarteko neska-mutilak</p>	<p>-Kontrolak eta maitasunak zerikusirik ez dute. Kontrola berdintasun faltarekin dago erlazionaturik, eta bikotekide batek besteak baino botere handiagoa duen bikote mota batekin; pertsona batek bere beharrizanak bestearen beharrizanak kontuan hartu barik asetzearekin.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - 2 metro luze den paper zatia. Bertan 0tik 10era bitarteko zenbaki-sailkapena margotuko dugu, termometro erraldoi bat sortzeko. - Irakurtzeko eta termometroan kokatzeko esaldi-zerrenda. - Irakurgai osagarria 	

<p>Xede-taldeen arteko desberdintasuna termometroak neurtuko dituen jokabideak izango dira.</p> <p>Talde gazteenentzat 1. jokabide-zerrenda erabiliko dugu; beste taldean, aldiz, 2. jokabide-zerrenda.</p>	<ul style="list-style-type: none"> -Mutilek euren gizontasuna egiazatzeko erabiltzen dute jokabide hori; horixe dela eginbehar dutena uste dute eta. - Neskek toleratzen dituzte jokabide horiek interesarekin eta maitasunarekin nahasten dituztelako; jokabide-aldaketa eskatuz gero, bikotea galduko dutela pentsatzen dute. - Kontrolatzeko jokabideak mozoraturik ager daitezke, interesaren edo maitasunaren mozorroaz, hain zuzen. Horrexegatik nahastu ahal ditugu. Batzuetan, mutil horiek oso seguru daudela ematen du, eta hori erakargarria izaten da neskentzat. - Kontrolatzeko jokabideak, sarritan, normaltzat hartzen ditugu, edota tontokeriatzat. Berdintasunarekin zerikusirik ez duten arazoak direla uste dugu. Interpretazio hau, lasaigarria bada ere, arriskutsua izan daiteke: mutilek ez dute errurik eta neskak errudun sentitzen dira. 	<p>Kontrola indarkeria ikusgaitzagoa delako kontzeptuan sakontzeko “Violencia psicológica en las relaciones de pareja juvenil heterosexual” (Vázquez, Estébanez) ikerketan agertzen den laburpena irakurtzeko gomendatzen dizugu. Honako <i>blog</i> honetan aurkituko duzu: minoviomecontrola.blogspot.com</p> <p>Honako estekan http://www.scribd.com/doc/14534656/maltratopsicologico.</p> <p>Lehenengo 15 orrialdeek gai bi hauek aztertzen lagunduko dizute: indarkeria psikologikoa osatzen duten jokabideak eta gazteek euren lehenengo bikote-harremanak zelan bizi dituzten.</p>
---	---	--

Prozedura

-Termometroa ikasgelako lurrean jarriko dugu. Parte-hartzaileak inguruan jarriko dira.

- Ekintzaren helburua bikote-harremanei buruzko iritziak batzea dela azalduko dugu, euren adineko neskek eta mutilek esandako kontuak landuko ditugula, eta gure iritziak, harremanetan sarritan izaten diren egoerak direla. Jokabideen gaineko iritzia eskatuko diegu, bikotekidea kontrolatzeko jokabideak diren esateko. [5 minutu]

- Jokabide desberdinak irakurriko ditugu. Horren ostean parte-hartzaile bakoitza, bere iritzia kontuan hartuta, termometroaren puntu batean kokatu beharko da. 0 graduetan kokatzeak esan nahi du kontrolatzeko jokabidea ez dela; 10 gradutan kokatzeak, ostera, kontrolatzeko erabateko jokabidea dela. Parte-hartzaile guztiak kokatuta daudenean, muturretan daudenek euren iritzia eta kokapena azaldu beharko dute. Muturretakoek emandako argudioak abiapuntu, gainerakoek ere esango dituzte euren iritziak. Baliteke lehenengo jokabidea aztertzeko denbora gehiago behar izatea, parte-hartzaileak ez baitira horretara ohitua egongo, baina hurrengoetan gero eta arinagoa izango da.

Amaitzeko, eta iritzi guztiak entzun ondoren, baten batek lekuz aldatu nahi duen galdetuko dugu; baten batek hala nahi balu egin lezake, eta aldaketa horretarako arrazoiak edo argudioak azalduko lituzke.


Ekitaldia nahi dugunean amaituko da, "temperatura" zenbat aldiz "neurtu" nahi dugun, hainbat esaldi esango dugu. Ez da komenigarria gehiegi luzatzea. Gomendagarriena izango da 5 edo 6 item. [30 minutu]

Aldaerak

- ➔ Termometroa erabili ordez, kartak erabil daitezke. Karta bakoitzean jokabide bat egongo da idatzirik, eta ateratzen joango gara iritziak emateko. Modu honetan, termometroarekin ez bezala, ez gara espazioan mugitu behar izango, prozedura berdina erabili arren.
- ➔ Termometroa eta kartak erabili ahal dira tartekaturik; parte-hartzaileraren batek aipaturiko jokabideak txertatu ahal ditugu eta gainerako guztiek horren gaineko iritzia eman beharko dute jolasaren bidez.
- ➔ Denbora nahikoa izanez gero, taldeak iritziaren arabera osa daitezke, hau da iritzi berekoak elkartu eta argudioak pentsatu beharko dituzte bestelako iritzia dutenei adierazteko. Honen helburua ez da izango denek berdin pentsatzea edo batzuek besteak konbentzitzea, argudiatzeko ahalmena bultzatzea baizik.
- ➔ **20-25 urte** bitartekoen taldeari irakurgai osagarriaren 2. orritik 5. orrialdera arteko zatia eman ahal diegu. Bertako edukinei buruzko eztabaida egin daiteke, hau da, neska eta mutilen arteko harremanei buruzko euren usteak azaldu eta eztabaidatu.

Dinamika ondo garatzeko oharrak

- Oinarrizko errespetu giroa sortu behar da dinamika honen hasieratik, bikotekidea kontrolatzeko jokabideen alde daudenak, hau da, diskriminatzeke mitoeekin edo estereotipoekin ados daudenak, ez estigmatizatzeke.
- Eztabaida bultzatzeko geu ere koka gaitezke termometroan, taldeko gehienak dauden muturraren beste aldean, hau da, aurkako aldean; gero argudioak emango ditugu ("deabruaren abokatuarena" egingo dugu).

- 
- Ekitaldia arina izan beharko da, bizkorra, debateak ez dira gehiegi luzatu behar; ariketa honen helburua da, azken finean, neska eta mutilen arteko harremanei buruzko argudio gehiago izatea, hauetan sortzen diren jokabideei buruzko datu gehiago izatea. Taldekide gehienak ados badaude jokabide jakin bat identifikatzean, eta, kontrol handiko jokabidea dela uste badute, aztertu egingo da; jokabide horrek gazteen artean zer nolako indarra duen ere aztertu egingo dugu, zein baloretan oinarritzen diren, neska/mutilen portaeran azaltzen diren rolak eta estereotipoak, eta abar.

1. FITXAREN EDUKIAK

1. JOKABIDE-ZERREDA:

- ❑ Mutila haserretzen da neskak norekin eta non dagoen esaten ez badio.
- ❑ Neskari eta honen lagunei buruzko mespretxuzko komentarioak egiten ditu: Hor konpon! Hori burutik eginda dago!
- ❑ Mutilak honelakoak esten dizkio neskari: "Zure lagunek "tontokeriak" kutsatzen dizkizute".
- ❑ Mutilak neskaren janzkera kritikatzten du.
- ❑ Beste pertsona batzuen aurrean dagoenean eskandaluak antolatzen ditu, eta arazoan errua neskari leporatzen dio.
- ❑ Neskari besotik tiraka ibiltzen zaio berak nahi duen lekura eramateko.

2. JOKABIDE-ZERREDA:

- ❑ "Neskak sexu-harremanik eduki nahi ez duenean mutilak antigoalekoa dela esaten dio"
- ❑ Azalpenik eman gabe ez da hitzorduetara azaltzen.
- ❑ Mutilak mehatxu egiten dio neskari, berak nahi duena egiten ez badu utzi egingo duela esaten dio.
- ❑ Neskaren gainetiko autoritatea duela (neska bere menpean dagoela) sentitzen du, baita aitortu ere.
- ❑ Honako hau esaten dio neskari: "neuk zeuk baino hobeto dakit zer komeni zaizun".
- ❑ Mutilak uste du neska ez dela berarekin (mutilarekin) zerikusirik ez duten gaiez berba egiteko gai.

2. FITXA : TXO! KONTROLATZEN? KOMIKIA

Gaia	Helburu zehatzak	Denbora	Ekintza-mota
Indarkeria sexista eta KONTROLA.	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kontrolatzeko jarreraren esanahia aztertzea. 2. Jarrera horiek mutilengan zein nesengan dituzten eraginak aztertzea. 3. Kontrolean oinarrituriko harremanen eta berdintasunezko harremanen arteko aldea aztertzea. 4. Gizonezkoen kontrolatzeko jokabideak arbuiatzeko baliabideak ematea 	<p>Guxienez: ordu eta erdi.</p> <p>Gehienez: ordu 2</p>	<p>-Komikia aztertzea eta talde txikika lantzea.</p> <p>-Eztabaida talde handian</p>
Xede-taldea	Lantzeko oinarrizko kontzeptuak	Behar duguna	
<p>15-19 urte bitarteko gazteak.</p> <p>20-25 urte bitarteko gazteak (hainbat aukera)</p> <p>Material berbera talde bietarako.</p>	<p>- Kontrola hiru mailatan adierazten dugu: sentimenduak, pentsamenduak eta jokabideak.</p> <p>Jokabidea hainbat pentsamenduren eta sentimenduren ondorioa da, horrexegatik aztertu behar ditugu sentimendu eta pentsamendu batzuk, indarkeriaren oinarria dira eta.</p> <p>- Ageriko jokabidea aldatzeaz gain, jokabide eta</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Txo! Kontrolatzen? komikia - Lanerako fitxa 	

jarrera sexistak sortatzen dituzten pentsamenduak eztabaidatu behar ditugu.

-Garrantzitsua da sentimenduak baliozkotzat jotzea,; ez ditugu ukatu behar. Parte hartzaileek esaten badute protagonistetako bat haserre dagoela, edota urduri, edo ez dela seguru **sentitzen...**, sentimendu horiek zilegi direla azpimarratu behar dugu. Gaitzesgarria dena jokabidea da, hau da, sentimendu horiek kontrolatzeko, eraso egiteko edo sumisiorako jokabideak ekartzea.

- Azpimarratu behar dugu jokabidea **hezi** behar dugula, sentimenduak ezagutu, bereizi eta era egokian adierazi, betiere min eman barik.

- **Berdintasunezko harremana** inoiz ez da kontroletik eraikitzen.

- Denok **egin** dezakegu indarkeriaren aurkako **zerbait**, eta gure lagun-taldean begirunea eskatu.

Prozedura

- *Txo! Kontrolatzen?* komikia aurkeztuko diegu eta irakurri egingo dugu; irakasleak edo dinamizatzailleak berak irakur lezake, edo nahiago izanez gero, boluntario batzuk eskatu ahal ditugu horretarako.
- Boluntarioak egonez gero, bakoitzak pertsonai batena egin lezake: protagonistak (neska eta mutila), lagunak...
- Irakurketa honek lagunduko digu bereizten kontrola ulertzeko eta erabiltzeko jarrera desberdinak: kontrola erabiltzea, sufritzea, arbuiatzea, onartzea, eta abar. [10minutu]
- Irakurri ondoren hiru lan-talde osatuko ditugu; irakurketan parte hartu dutenak talde desberdinetan egongo dira banaturik.
- Talde bakoitzak misio bat dauka: komikiko istorioa aztertu egingo dute, bakoitzak pertsonai baten ikuspuntutik. Horretarako erantsi ditugun fitxak erabiliko ditugu (talde bakoitzak bat).
- Talde bakoitzean irakurketan parte hartu duen baten bat egongo denez gero, irakurtzean zer sentitu duen azal dezake.
Irakasleak/dinamizatzailleak 10 bat minutu emango du talde bakoitzean, fitxako galdera guztiak lantzen dituztela ziurtatzeko [30 minutu]
- Talde bakoitzak erabakiko du zein izango den bozeramalea, hau da, zeinek transmitituko dion talde handiari, bost minutuz edo, berba egindakoa: egin duten analisia, zertan egon diren ados eta zertan ez. [15 minutu]
- Irakasleak/dinamizatzailleak aipaturiko ideiarik garrantzitsuenak jasoko ditu arbelean; horretarako hiru zutabe desberdinak antolatuko ditu: batean sentimenduak idatziko ditu, bigarrenean pentsamenduak eta hirugarrenean jokabideak. Honela, eztabaida bideratu egingo du azpimarratzeko zeintzuk diren kontrolean oinarrituriko harremanetako osagaiak, eta zeintzuk berdintasunezko harremanetakoak, eta osagai horiek zelan agertzen diren pertsonaia bakoitzean. [20 minutu]

A Taldea: Mutilaren pertsonaia aztertuko du.

B Talde: Neskaren pertsonaia aztertuko du.

C: Talde: Lagun guztiak banan-banan aztertuko ditu, baita geroago lagun guztiak batera ere (lagun-taldea).

Aldaerak

- Lanketarako ordu bi badaukazu antzezpen labur bat egin dezakezue ekintza amaitzeko. Talde bakoitzak komikiaren eszena bat aukeratuko eta proposamen berri bat egingo du: kontrolik ez dagoen egoera bat. Horretarako taldeak elkarrizketa berria osatuko du; komikiaren egoera berbera izango da, baina pertsonaiek beste aukera bat izango dute, berdintasunezko harremanaren eta elkarrenganako begirunea adierazteko. [30 minutu]

1. ALDAERA:

15-19 urte bitartekoentzat komenigarria da materialen artean aurki ditzakezun etiketak erabiltzea. Honela, lan-fitxak erabili ordez, etiketak erabiliko ditugu. Prozedura lehengoaren antzerakoa izango da, baina lan-talde txikietan parte-hartzaileek etiketak erabili beharko dituzte pertsonaien sentipenak, pentsamenduak eta jokabideak adierazteko.

- ➔ Etiketak nahasturik banatu ahal dira (gutxienez 3 etiketa talde bakoitzeko)
- ➔ Talde bakoitzak arlo bat etiketatu ahal du (sentimenduak, pentsamenduak eta jokabideak) eta atera dituzten ondorioak partekatu.

2. ALDAERA:

Komikia aurkeztu ahal dugu, baina egoera azaltzen duten koadroak hutsik egongo dira, hau da, mutilaren jarrera edo horren eraginak azaltzen den lekuan idatzi barik. Dinamika hau erabili ahal da lana hasteko nahiz amaitzeko.

- Eztabaida talde handian amaitzeko denon artean bete ditzakegu hutsuneak, ekintzan zehar landu ditugun ideak birpasatzeko.
- Termometroaren dinamikan erabilitako ideiak ere erabil ditzakegu (lehenago dinamika hau erabili badugu), komikiaren egoera bakoitza definitzeko.

3. ALDAERA:

20-25 urte bitartekoen taldeetan eszenaren bat antzez dezakegu, eta horren bitartez analisia egin. Eztabaida hasteko, antzeztu duen bakoitzak zer nahi izango zukeen esan azal lezake, zer sentiarazi zion bestek, zer pentsatzen du antzezturiko egoeraz, eta abar. Azaltzeaz gain, antzezteko ere eskatuko diegu.

4. ALDAERA:

Beste komikiren bat sortuko dugu? Komiki berri honetan kontrola ez da hain agerikoa izango, burutsuagoa izango da: zu barik ezin dela bizi esango dizu, ezin duela jasan beste pertsona batzuekin ibiltzen zarenean faltan zaituelako, zurekin dagoenean baino ez dela guztik zoriontsu sentitzen.

Taldeak bereizi ahal ditu lehen normaltzat hartzen zituen honelako egoerak, eta lehenago komikiaren agertzen direnak ordezkatzeko erabili. Komiki berrian kontrolatzeko modu burutsuagoak agertuko dira.

2. FITXAREN EDUKIAK

Txo! Kontrolatzen? Análisis egiteko gidoia. A TALDEA

Zuen ustez:

1. Zer sentitzen du mutilak? Maiteminduta dago?
2. Zergatik jokutzen du mutilak horrela?
3. Zertarako behar du neska-laguna? Zertarako behar du laguna?
4. Zein da neska-lagunari buruzko bere iritzia? Eta zein bere buruari buruzkoa?
5. Neska horrek uzten badu zer aukera gelditzen zaion mutilari?

Txo! Kontrolatzen? Análisis egiteko gidoia. B TALDEA

Zuen ustez:

1. Zer sentitzen du neskak? Maiteminduta dago?
2. Zergatik jokutzen du neskak horrela?

3. Zertarako behar du mutil-laguna? Zertarako behar du laguna?
4. Zein da mutil-lagunari buruzko bere iritzia? Eta zein bere buruari buruzkoa?
5. Mutila uzten badu zer aukera gelditzen zaion eskari? Eta mutilak uzten badun neska?

Txo! Kontrolatzen? Análisis egiteko gidoia. C TALDEA

Zuen ustez:

1. Zer sentitzen du neskaren lagunak?
3. Zer sentitzen du mutilaren lagunak?
3. Zelan lagundu ahal diote mutilari? Zelan neskari?
4. Zer egingo zenukete zuek egoera horretan?
5. Zer aukera gelditzen zaie protagonisten lagunei harremanak horrela jarraitzen badu? Eta harremana bukatzen bada?

2. FITXAREN EDUKIAK

ETIKETAK:

SENTIMENDUAK

PENTSAMENDUAK

JOKABIDEAK

HASERREA	NESKEK BABESA BEHAR DUTE	MIATZEN ETA AZTERTZEN IBILTZEA BESTEA ZERTAN DABILEN JAKITEKO
AMORRUA	EZ NAU NAHIKOA MAITE	BIKOTEKIDEA KRITIKATZEA
MAITASUNA	EZIN NAIZ INOREKIN FIDATU	HARREMANAREN ARAUAK INPOSATZEA
SEGURTASUN FALTA	BERAK UTZIKO NAUEN BELDAR NAIZ	BIKOTEKIDEAREN LAGUNAK KRITIKATZEA
ZELOAK	SEGURU MAITE NAUELA, BAINA ARAZOREN BAT DAUKA.	PENTSATZEN DUENA EZ ESATEA
ULERTU EZINA	ALDATU EGINGO DA...	INDARREZ EUSTEA
KONTROLA	MAITE DUDALAKO EGITEN DUT	BIKOTEKIDEA BARREGARRI UZTEA
BELDURRA	DENEK USTE DUTE NEUK USTE DUDANA	IRAINTZEA

Txo! Kontrolatzen?

¿Crees que tienes el mando?



Neska mutilen

arteko harremanetan gertatu daitezkeen egoerak dira hauek, batak bat, bikotean artean. Batzuetan normalak iruditzen zaizkigu, baina emakumeen aurkako indarkeriazko jarreraren abisu izan daitezke.

Komiki honek kontatzen duen istorioan egoera ezberdinak aurkezten dira, baina ez dute zertan guztiak gertatu behar, bakar bat nahikoa da indarkeriazko portaera bat izan daitekeenaren aurrean ahotsa altxatzeko.



Mutilak bere neska-lagunak egiten duena kontrolatzen du

Hizketan egiten da ez diotdik non nagoen eta norekin nagoen esan, batzuetan oso zakarra da nirekin...



Neskaren gaineko agintea duela sentitzen du eta horrela adierazten du

Zer uste du horiek, nahi duena egingo duela alir?

Txo, ez al duzu gehiegiz kontrolatzen?



Neska-lagunak bere izena eta lagunak aldatu ditzen salatzen da

Nahikoa duzu, beti tipa horretan zabil izan. Kutsurik egiten zaizu

Zer lutsatzen dit?

Tontolena eta arropa. Begira ze itxura duzuri!



Neska-laguna bakarrik uzten du eta emua berari egotzen dio

Lagun batekin nago eta ez nait joango, beste-ara bota portatuko badina...

Txo, zera egiten zara, ez?

AHARTU, HAU BIRROTIK JOITA DAGO



Paternalismoa eta bontatekeriaz tratatzen du

Nik badakit zuri komeni zizun

Ez dut joan nahi, utzi nazazu, min egiten diduzu.

Hiru burutik dago

Baina, zergatik ez duzu tipo hori antzarak formatzora bida izan?



Jakintza sortzen du eta emua neskeri jarratzen dio berarekin aurrera

entzun beharrik! Nik nahi dutona esango dut!

SHHHHH!



Neskek sexu harremanak izan nahi ez dituzten...

Eraiet zozoa eta itxia zara, ez zure lagunak hori bezala, ongi dakit nik hori...



Mutilak berari buruz esaten dutena entzun nahi du, ezin duzu itxi.

Zur-kortu txorretan ari zaituzte orain eta perandakoa hasi

Ez nirekin zuri buruz ari

Nikar aparte ba al duzu ba beste zerbaite buruan? Kar, kar, kar.



Koadriak gaitzetsi egin behar du bere jarrera

NESKAK GELO TU BEHAR DU

Ezen dait neskerekin puztzen ari dela, baina berari boz

Jarrera horren tipa bati neskek nesprebatzen ari da

Ez dakit beranduegi izango den, baina hobe orain geldiaraztea...

Dakit dakit zer egiteko gaitza izango den hori

hori ez zait gertatu mutil horiek nola tratatzen zaituzten, jator plantak egiten dituzte baina...



Oso garrantzitsua da lagunen babesa edukitzea baina neskek, moztu behar dira

Min egiten ari zaitzu

TIPO HONEN EZ NAU MAITE



Koadriak mutila bakarrik utzi du eta neska-lagunak utzi egin du

Maitasuna ez da aginte batez kontrolatu daitekeen jokoa. Txo, kontrolatzen?

Txo! Kontrolatzen?

Txo! Kontrolatzen?

Tu mando es virtual, yo soy real



25 de noviembre
Día Internacional
contra la Violencia
hacia las Mujeres.

BERDINSAREA

